

DIRU-ITURRIAK

1. PROIEKTUAREN GARAPEN OROKORRA

Enpresa bati ekin nahi genionean, diru-kopuru handiak inbertitu behar genituen, eta, hori dela eta, nerabe ikasleak garenez, oraindik ez dugu behar dena gure ekintzailtzak behar bezala funtziona dezaten; horretarako, hainbat **beke** bilatu ditugu, gure ekintzailtza-prozesuan lagun diezaguketenak.

Lehenik eta behin, **Espainiako gobernuko beke ditugu ekintzaile gazteentzat**, edo ETEntzat (Enpresa Txiki edo Ertaintentzat). Gobernuak hiru finantzaketa lerro onartu zituen enpresa txikiei eta ekintzailtza berritzaileari laguntzeko. Guztira, 98,5 milioi euro hiru kategoriatan banatuta daude: PYMEtan, Ekintzaile Gazteetan eta Oinarri teknologikoko Enpresetan. Enpresa txiki eta ertainek eta ekintzaileek sustatutako 70 enpresa-proiektu berritzaileari emango zaie estaldura. 25.000 eta 1,5 milioi euro arteko laguntzak emango zaizkie, enpresa txiki eta ertainek sustatutako proiektuei, lehiakortasuna hobetzeko eta enplegua sortzen laguntzeko. Maileguen amortizazio-aldiak 9 urteko gehieneko epemuga izango du.

Era berean, gure enpresatik hurbilago dauden beke bilatu ditugu, gure herrian, Bilbon, alegia. Horregatik, beste aukera bat aurkitu dugu, EHUko unibertsitateak ematen dituen beke, eta, gainera, gure atal teknologikorako haiekin lan egingo dugula jakinda, uste dugu aukera onenetako bat dela.

"**Gazteen ekintzailtza**" izeneko programa deitzen da, eta gehienez 25 ideia edo enpresa-ekimeni laguntzeko izango da. Helburua da bekaren onuradun diren ikasleen artean kultura ekintzailea aktibatzea, unibertsitate-eremuan sor daitezkeen enpresa-ekimenei laguntza eskainiz.

Hautatutako proiektuak dituzten ikasleek 3.600 euroko dirulaguntza jasoko dute. Gainera, UPV/EHUK aholkulari-sare bat jarriko du, proiektua garatzen den bitartean aholkularitza profesionalerako zerbitzuak emango dutena, eta ekintzailtzari eta berrikuntzari buruzko ikastaro espezifikoko bat antolatuko du.

2. ALOKAIRUA

Gure enpresa aurrera eramateko Barraincúa kalea, Abandoibarra-Guggenheim, Bilbon lokal bat alokatzea erabaki dugu. Alokairuagatik hilero ordaindu behar dugun kantitatea 1.400€koa da.

Gobernuak diru laguntzak ematen ditu enpresa bat hasi nahi duten pertsoneri. Lehenengo urtean, konkretuki lehenengo hamar hilabetetan, Eusko Jaurlaritzari eskatuko zaio subentzio bat enpresa-sortzailentzako aktibitate enpresarial edo profesional batek hasiko nahi dutenek.

Gobernuak ematen dituen lagutzen artean bat hurrengo esaten du: Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideen kasuan, dirulaguntza ez da inola ere 6.000 eurotik gorakoa izango bazkide guztientzat. Dirulaguntza horiek aplikatzeko gastuen artean dago "negozio-lokalak alokatzea", baldin eta ez badira familia-etxebizitza baten parte edo beste enpresa batekin partekatutako espazio baten parte.

Guk gure alokairua ordaintzeko, Eusko Jurlaritzari diru laguntza hau eskatuko diogu.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak 10 hilabeteak izango dira. Beraz, lehenengo 10 hilabeteetan, alokatzeko dirulaguntza 600 €/ hileko izango da. Laguntza hori ez da bateragarria beste batekin; beraz, alokairuaren gainerako kosturako, urtebeterako 12.000 euroko kreditua eskatu nahi dugu. Alokairuaren urteko gastuak 16.800 €-koak dira (1.400 €/ hileko x 12 hilabete). Dirulaguntzaren urteko 6.000 €-rekin eta finantza-erakunde bati eskatutako 12.000 €-rekin urteko alokairu-gastuak ordainduko ditugu. Kredituaren hileko kuotak negozioaren gastu finkoen zati izango dira. Produktuak saltzeagatik lortzen diren diru-sarreretatik atera beharko dira.

3. ETORKIZUNERA BEGIRA

Ikerketei dagokionez, gure enpresa ETE bat izango litzateke (Enpresa Txiki eta Ertainak), enpresa txikia konkretuki. Horregatik, gure enpresaren aurreikuspena lehenengo urtean 2 milioi euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dira. Aurreikuspen hauetan agertzen diren emaitzak lortu eta aztertzeko hainbat ekintza burutuko ditugu (sare sozialen erabilpena eta jasotako diru-sarrerak, eta bataz besteko prezio eta salmenten kalkulu minimoa; hau da, famarik gabeko enpresak eskuratu daitezkeen emaitza).

Lehen urtean ez ditugu erabiliko azpian dauden sare sozialak, hau da, inbersion handiagorik behar ez duten sareak erabiliko ditugu, lehen urtean inbersion handiagoak izaten baititugu. Datorren urteari begira, gogoan izango ditugu, baina ez ditugu inbertituko, horretarako aukera izan arte.

Sare sozialetan irabazten den diru-kopurua hainbat faktoreren araberakoa da, eta ezin da harreman zuzenik ezarri urteko bisita-kopuruarekin. YouTube, Instagram edo Twitch bezalako plataformetan eduki-sortzaileen diru-sarrerak hainbat iturritatik datoz, hala nola publizitateetik, kolaborazioetatik, dohaintzetatik eta babesletzetatik. **YouTube**n, adibidez, diru-sarrerak publizitateetik datoz nagusiki, eta kopuru zehatza hainbat faktoreren araberakoa da, hala nola iragarkien erreproduzioaren iraupena eta entzuleen demografia. YouTubeko publizitateagatik diru-sarrerak asko aldatzen dira,

eta ez dira zuzenean kalkulatzeko bisita-kopuruaren arabera. **Twitch** bezalako plataformetan, streamerrek sarrerak lor ditzakete jarraitzaileen harpidetzen, dohaintzen eta babesletza-akordioen bidez. Irabaz daitezkeen diru kopurua entzuleen eskuzabaltasunaren eta elkarlanerako aukeren arabera da.

Laburbilduz, irabazien eta sare sozialetan urtean egiten diren bisita-kopuruaren arteko erlazioa konplexua da, eta hainbat faktorek eragiten dute, sortzailearen moneta-metodo espezifikoak eta erabilitako plataforma barne.

Gure prezioa zehazteko ETE bat garela hartu behar da kontutan eta bestelako enpresen tamainarekin konparatu. Hasteko, gure kostuak enpresa handietakoenak baino txikiagoak izango dira: guk alokatutako instalazioak eta baliabideak askoz gutxiago izango dira, eta hasierako urtean ez denez gu baino langile gehiagorik egongo, soldaten dirua baztertu egingo dugu. Hortaz, batz besteko kalkulu hau burutu dugu, prezio-kalitate harremana hobereana duten 10 enpresa espainiar txiki eta ertainen artean: $[GGP= 399\text{€} + WS= 185\text{€} + SSG= 220\text{€} + AGTR= 200\text{€} + SSGW= 279\text{€} + SS5P= 251\text{€} + AGTR2= 130\text{€} + AAWE= 279\text{€} + AAWS8= 249\text{€} + CCCA2= 449\text{€} \rightarrow 2641 \text{€}/10 = 264,1 \text{€}]$.

Hau ikusita, gure produktuak batera (aurreko enpresek daramatzaten teknologiaren dimentsioa gure bi produktuek daukaten teknologiaren bikoitza izango litzateke) 264,1€ ingurutan saldu beharko genituzke. Baina honi, ekoizpen kantitatea biderkatu behar diogu gure diru-sarrerak urtean zehazki kalkulatzeko. Aurten Apple-ek 7 milioi smartwatch saldu ditu (guk erabilitako teknologia bera duen produktua da), gure enpresaren dimentsioa 1000 aldiz txikiagoa denez ($7.000.000/1000=7000$), gure enpresaren aurreikuspena guztira 7000 produktu saltzea izango da. Hau da, ($7000 \times 264,1= 1.848.700\text{€}$) aurreikuspenik optimoa aurten 1.848.700€ eskuratzea izango litzateke.

4. PONDERAZIOA

Gure guztirako batzbesteko diru-laguntzak 506.000€ izango da. Hau da, diru laguntza totalen % 1,19 alokairua ordaintzeko izango da eta soberako % 98,81 partaideen soldatak, garraioak ordaintzeko, proiektua garatzeko eta bestelako kostuak ordaintzeko izango da.

